

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin-behineko onespena ematea zenbait zerga erroldari

Nik, José Ramón Molinuevo Lañak, Amurrioko (Araba) Udaleko alkateak,

Jakinarazten dut:

Tokiko gobernu batzarrak, 2021eko urtarrilaren 28ko bilkuran, behin-behineko onespena eman ziela 2021eko zerga errolda hauei:

- 1- Herri larreen aprobetxamendu tasa (espedientea: 2021/S106/4).
- 2- Hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren 2020ko lehen hiru-hilekoko tasa (espedientea: 2020/S328/1).
- 3- Udalaren landa ondasun higiezinaren luberritze tasa (espedientea: 2021/S106/2).
- 4- Ibilgailuak sartzegatik eta aparkalekua gordetzearen aprobetxamendu bereziaren tasa (espedientea: 2021/S106/1).
- 5- Udal hilerriaren mantentze zerbitzuaren tasa (espedientea: 2021/S106/3).
- 6- San Anton merkatuaren tasa (espedientea: 2021/S106/5).

Aipatutako espedienteak ikusgai egongo dira udal honetako kontuhartzailatza eremuan 15 egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesa duen orok aztertu eta, egokia iritziz gero, erreklamazioak eta oharra aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsizat joko dira espedienteak.

Amurrio, 2021eko urtarrilaren 29a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA